

KANALAK

Gure proiektua arrakastatsua izateko, oso garrantzitsua da ondo zehaztea gure zerbitzua bezeroengana nola iritsiko den eta haiekin nola komunikatuko garen. Horregatik, gure kanalak hiru multzo nagusitan banatu ditugu: banaketa, publizitatea eta bezeroaren arreta, bakoitzak bere helburu propioak ditu.

Komunikazio kanalen barruan, lehenik publizitatea dugu, eta hemen bi bide ezberdin erabiliko ditugu jende mota guztiengana iristeko. Alde batetik, gazteentzat eta garraio publikoa egunero erabiltzen dutenentzat, sare sozialak erabiliko ditugu, batez ere Instagram, TikTok eta Facebook; horrela, gure iragarkiak haien mugikorretan agertuko dira modu erakargarrian. Beste aldetik, sare sozialak erabiltzen ez dituzten pertsonengana edo adinekoengana iristeko, publizitate fisikoa egingo dugu. Horretarako, kartelak eta infografia errazak jarriko ditugu Gipuzkoako autobus eta tren geltoki nagusietan, bidaiariek garraioaren zain dauden bitartean gure berri izan dezaten.



Horrez gain, publizitate fisikoa egitea ezinbestekoa dela uste dugu, jende gehien ibiltzen den autobus eta tren geltokietan infografiak eta kartelak jarritz. Izan ere, sare sozialen bitartez zaila da hirugarren adineko pertsonengana iristea, eta guretzat oso garrantzitsua da talde hori kontuan hartzea, garraio publikoaren erabiltzaile nagusietako bat baitira. Adin horretako jende askok autoa hartzeari beldurra dio edo ez du gidatzeko aukerarik, eta ondorioz, autobusa eta trena dira herritik irteteko duten modu bakarra. Kolektibo honi gure zerbitzuaren berri emateko, bide tradizionalak erabiliko ditugu: irratian iragarkiak jarriko ditugu eta tokiko egunkarietan informazioa argitaratuko dugu.

Salmenenta eta banaketa kanalei dagokionez, behin bezeroek gure publizitatea irakurri edo sare sozialetan ikusi ondoren beraien mugikorrean errez lortzeko aukera izango dute. Apple edukitzen badute App Store bidez eta Android edukitzen badute Google Play-ren bidez eskuratu ahalko dute gure aplikazioa. Kanal hauen bidez, ziurtatzen dugu erabiltzaileek aplikazioa modu seguruan eta oso errazean deskargatu ahal izango dutela beren gailuetan.

Gainera, denda hauen bidez, aplikazioa automatikoki eguneratuko da erabiltzailearen mugikorrean, eta horrela beti azken bertsioa eta informazio berriena prest edukiko dute ezer egin beharrik gabe.

